

## **Donostia, Klima Aldaketaren Aurkako Nazioarteko Egunean**

*Autokontsumorako 5 eguzki-instalazio fotovoltaikoak, Artikutza birnaturalizazioa, Donostiatruk Altzan*

Urriaren 24an Klima Aldaketaren Nazioarteko Eguna da. Klima aldaketari aurre egiteko, Udalak bere ibilbide-orria du, eta horri eutsi nahi dio geroz eta datu hobeak izateko. Hala, orainarte egindako lanen artean aipatzekoak dira:

- Eraikuntzako Eraginkortasun Energetikoaren Ordenantza jendaurrean jartzeko fasea
- Autokontsumorako 5 eguzki-instalazio fotovoltaikoak, berriki sustatu direnak: Jakintza ikastola (Heriz), Ondarretako eta Uliako aterpetxeak, Lauhaizetako haztegiak eta parke mugikorra.

2020an, lau sektore estrategikoetan lan egiten jarraitu dugu. Adibidez,

- Mugikortasunaren eremuan ondorio kaltegarriak arintzeko eta horietara egokitzeko, Kontxako bidegorria zabaltzea bultzatu dugu, ibilgailuen bi norabideetarako errei bakarrera murriztearekin batera;
- Lurraldearen eremuan, Artikutza birnaturalizatu egin dugu urtegia hustu ondoren, landaredia, arrain-fauna eta urlehortarrak kontserbatzeko eta hobetzeko ekintza zehatzekin,
- Martuteneko zubiaren eta poligonoaren artean Urumeako ibilgua zabaltzeko lanak ere kontuan hartu beharrekoak dira, uholdeak saihestea helburua dutenak.

### **Zertan ari gara?**

Aldaketa klimatikoaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Donostiatruk egitasmoaren edizio berezia egingo da Altzan, Harria parkean.

Aurtengo martxoan, Larrialdi Klimatikoaren Adierazpena onartu zen, klima-aldaketari aurre egiteko jarduketa sorta batekin.

Energiaren esparrua ere bereziki garrantzitsua da klima-aldaketari dagokionez. Horrela, Udalak Eraikuntzako Eraginkortasun Energetikoaren Udal Ordenantzaren berrikuspena bultzatu du, energia aurrezteko eta iturri berriztagarrietatik sortutako energiak sustatzeko. Une honetan ordenantza jendaurrean ikusgai dago, Tokiko Gobernu-batzarrak hasierako onespena eman ondoren.

Hala, 2019ko irailaren 26ko Osoko Bilkurak, Donostiako Udalak, ahalik eta adostasun handiena duten herritarren eta talde politikoen ekarpenak bilduko dituen Klima Larrialdietako Adierazpena onartzeko konpromisoa hartu zuen, baita ahalik eta lasterren zabaldu eta ezartzekoa ere.

2018an, partaidetza-lan handi baten ondoren, Klima Donostia 2050 (Klima DSS 2050) estrategia argitaratu zen, klima-aldaketari aurre egiteko ibilbide-orria eguneratu zuena.